

“IRAKASLEEN LANA OSO GARRANTZITSUA DA MAILA HAUETAN”



Garbiñe Sanroma - The English School | Lehen Hezkuntza (Neo) [1. saria]

Garbiñe Sanroma “Estralurtarrak” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du Lehen Hezkuntza Neo kategorian lehen postua. The English School-eko irakasle honen ustez, ikasleek “oso gustura hartu dute parte” ekimenean eta “oso parte-hartzailea izan da”.

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?
- *Garatu duten gaia, baita lana eta bideoa egitea ere.*

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Oso oso pozik daude.*

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- *Gure mailarentzat zailegiak izan dira. Irakaslearen lana oso beharrezkoa izan da. Hala ere, ikasleak oso pozik daude emaitzarekin.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- *Balioetan hezten dira eta zer pentsarazi ematen diete.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Lan horrek ikasturte osoan aktibo egotera behartzen zaitu. Oso ongi dago antolatuta eta lehia amaierara arte mantentzen du.*

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Bai.*